

PSNren gobernua errepikatzeko aukera

XABIER LETONA

La bost puntuko parte-hartze txikiagoarekin alderdi handi guztiek boto guxtiago lortu dituzte Nafarroako Legebiltzarrean, salbu eta EH Bilduk, zeinak bere historiako emaitzarik onena lortu eta lehenbiziz hirugarren indarra izatera pasatu den Nafarroan, Geroa Baiari aurre hartuz. Eskuinak 2019an baino emaitza txarragoak lortu ditu, eserlekutan eta bototan; baina Voxekin, puntu bat gora egin dute ordezkartzan eta eskuin muturrak botoak hirukoiztu ditu. Parlamentuan nabaritutako da haien presentzia, eta seguruenik eskuina eskuinera go eramango dute; zalapartatik harago, hori ohi da eskuin muturraren lorpenik kaltegarriena. Zurekin Nafarroak eutsi egin dio eserlekutan, baina bototan 7.000 galdu ditu. Ostera ere ikusten da batzuek ez duela beti gehiago ematen.

Iruñerako beste aukera bat: Elma Saiz alkate, EH Bilduk indar handiz baldintzatutako gobernu batean

Eta emaitza horrekin zer? Bada, EH Bilduk betetzen badu esaten ari dena, azken legealdiaren antzeko panorama geldituko da. PSNk, Geroa Baik eta Zurekin Nafarroak gobernua osatzeko indarra izango dute: eskuinak eta eskuin muturrak baino boto bat gehiago dute. Horretarako EH Bildu abstenitu egin behar da inbestidura saioan, eta gobernagarritasuna bermatu behar du aurrekontuei begira. Hori bai, oraingoan indar gehiago izango luke negoziazio horietan.

Eskuina beti irabazle Nafarroan, baina leku gehienetan ezin gehiago osora iritsi. Hori da UPNko buru Javier Esparzaren drama, bakarrik ezin eta PSNrekin ere ez, garai batean bezala. Hirutan aurkeztu da eta badirudi hirugarrenean ere



EH BILDU

galduko duela lehendakaritzarako aukera. Ez dirudi laugarren aukerarik izango lukeenik. Geroa Bain ere badituzte arrazoiak kezkatuta egoteko, erabakigarria izan ohi den Uxue Barkosen bultzada ez baita izan nahikoa oraingoan, eta gainera, Barkos ez baita betirako politikan.

IRUÑEA BERO-BERO








Ezker abertzaleak sostengu handia izan du beti Iruñean, baina Joseba Asironen emaitza handiak berriz erakusten du pertsonak zein garrantzitsuak diren. UPN-EH Bildu polarizazioa inoiz baino handiagoa izan da -3.000 botoren aldea eskuindarren alde-, eta 2015eko gobernu blokeak enpate egin du zinegotzitan eskuinarekin. Zalantzarik gabe, indar adierazle dira horiek guztiak, baina ez gobernagarritasuna aldatzeko modukoak. Aurreko legealdian moduan, orain ere Iruñeko alkatetza PSNren esku egongo da, eta hark esan du ez duela EH Bildu bozkatuko. Beraz, normalean UPNk gobernatuko du, baldin eta beste formula batzuk gailentzen ez badira.


Hala ere, urrutikoagoak baina beste aukera batzuk egon badaude. Esaterako,

PSNk eta EH Bilduk legealdia banatu dezakete, bi urte batek izan dezake alkatetza eta beste bi besteak. Edo, azkenean, EH Bilduk PSNri ematea alkatetza. EH Bilduren oinarriek ez lukete samur irentsiko apo hori, baina EH Bilduk behin eta berriz esan du eginahalak egingo dituela eskuinak gobernatu ez dezan. Elma Saiz alkate, EH Bilduk indar handiz baldintzatutako gobernu batean. Aldaketa instituzionalak bultzatu nahi badira, horra beste aukera bat. Ez litzateke lehen aldia, 1979an PSOE (5) HBren (7) atzetik gelditu baitzen, eta eskuinak har ez zezan HBk eta EAJk (2) Julian Balduz sozialista egin zuten alkate.

Ezker abertzalea lehen indarra da zinegotzitan Nafarroan, baina UPN bototan, eta PSNren indarra batez ere Iruñetik behera dagoela berresten da. Horrela hobeto ulertzen da, adibidez, euskararekiko PSNk duen jarrera oldarkorra. EH Bilduk hainbat alkatetza berreskuratuko ditu, lehen indarra izan delako. UPNk, aldiz, ez ditu gehiago osoak garai batean bezala lortzen, eta gobernatzen badu izango da PSNk hala hautatzen duelako, adibidez Barañain, Eguesibar edo Lizarran. ●







Nafarroako Legebiltzarra


	2023	2019
 UPN	89.643	-
 PSN	66.448	70.143
 EH BILDU	42.665	59.106
 GEROA BAI	55.478	49.744
 PP	23.080	-
 ZUREKIN NAFARROA	19.539	26.350
 VOX	13.754	4.546
ABSTENTZIOA	% 33,38	% 29,19



*2019an Navarra Sumak (UPN+PP+CS) 124.336 boto lortu zituen.

Iruñeko Udala

	2023	2019
 UPN	30.691	-
 EH BILDU	27.752	26.691
 PSN	15.850	17.417
 PP	8.526	-
 GEROA BAI	7.654	8.406
 ZUREKIN NAFARROA	5.228	7.770



Nafarroako udalak

EH Bildu izan da lehen indarra 40 udalerritan, **UPN** 22tan, **PSN** 17tan, **Geroa Bai** 4tan. Bestelakoak 151.

ONDORENGO UDALETAN ALDERDI BOZKATUENA ALDATU DA:

Zizur Nagusia (2023:  GEROA BAI / 2019: NA+)

Tafalla (2023:  EH BILDU / 2019: NA+)

Berriobeiti (2023:  EH BILDU / 2019: NA+)


Burlata (2023:  EH BILDU / 2019: NA+)


Abaurregaina (2023:  EH BILDU / 2019: GAZTELUBERRI)

Lekunberri (2023:  EH BILDU / 2019: LT)

Arguedas (2023:  UPN / 2019: PSN)

Valtierra (2023:  UPN / 2019: PSN)

Monteagudo (2023:  PSN / 2019: UPN)


Caparrosa (2023:  PSN / 2019: CPF)


Pitillas (2023:  PSN / 2019: AIP)

Sartaguda (2023:  PSN / 2019: EH BILDU)

Lodosa (2023:  UPN / 2019: LOIU)

Mendabia (2023:  UPN / 2019: PSN)

Torralba del Rio (2023:  GEROA BAI / 2019: TU)



*2019an Navarra Suma koalizioan aurkeztu ziren UPN, C's eta PP. Hauteskunde hauetan koalizio horretako kideren batek irabazi badu aurretik Na+ zegoen udalen batean, ez dugu aldaketen zerrendan sartu.